

Ilara on



UXUE APAOLAZA LARREA

Ilarei buruzko artikulu bat irakurri nuen duela bizpahiru egun, Guillem Martinezena, eta ez dakit ondo ulertu nuen. Kontatzen zuen etxe azpian ezer berezirik ez zuen izozki denda bat daukala, eta azken aldian ireki orduko izaten duela jendea, bata bestearen atzean ordenatuta, zain, *influencer* esaten zaien horietako batek ez dituen ezaugarri eksklusiboak asmatu dizkiolako. Errealitatea hain eramangaitza izanik, nahiago omen dugu gezur baten zain ordenatu. “Milioika pertsona dira milioika ilaratan; horrexegatik dirudite zutabe, zain, hurrengo gezurra noiz iritsiko. Aurrera egiteko agindua”. Susmoa dut tipo horrek ez duela ilararik egiten. Eta artikulua benetako metafora ez zela ilara bera, baizik eta ilarari, etxetik, goitik behera begiratzen dion hori.

Izozki denda horri asmatu diotena gezurra da. Baina El Prado museoa ez da gezurra, ez zentzu horretan. Hor daude koadroak. Hor dago isiltasuna. Hor dago handitasuna. Hor dago paseoaren dibagazioa. Hor dago begiratzen zaituzten hainbeste begi pintatu. Ilara luzeenak museora doan sartzeko orduetan egiten dira.


Ur-parkea, abuztuan, ez da gezurra, umeentzat egun osoan planik gehiago ez pentsatu behar izateko paradisua dira, neuronan pijaman lasai egotekoak. Lehenengo, ordea, ilara autoan, ilara sarreran, ilara, ziur asko, atrakzio bakoitzean.

Benetakoak dira harategia, supermerkatua, zirkua, konzertua, hegazkina, are herriko plazan Olentzero eta Mari Domingi umeen gutunak jasotzen.

Eskainiko baligute, denek ezabatuko genituzke ilarak gure bizitzatik, eta izorratu egingo genituzke. Eskainiko baligute, gure bizitzatik ezabatuko genituzke guk aukeratutako pertsonekin nahastea eskatzen diguten gauzak. Besteak ez badira gu baino distiratsuagoak, markakoagoak, ospetsuagoak. Baina horiek ez daude ilaran, hegazkinera sartzeko ilararen ondotik pasatzen dira, eta, gero, hotelen bateko leihoan egongo dira, edo etxeokan, ilarak interpretatzen.

Badaude errealitate gordinagoetara daramaten ilarak. Nik aspaldian iltzatuta daramadan ilara bat Madrilen ikusi nuen Aste Santuan eliza baten ondoan: errealitatea karitatezko poltsa bat zen, bokadiloa, jogurta, fruta ale bat. Eraikinari ia buelta ematen zion. Motxila horiak ikusten ziren ilara zipriztintzen zutenak, Glovo. Zer gezurren zain zeuden. Osakidetzaren larrialdietako itxaron geletan ere ilara desordenatuak egiten ditugu, harategikoa dirudien papertxoak eskutan. Biziraupenaren (edo opiazeoz ondo goxatutako heriotzaren) gezurraren zain.

Klase ertain baxua, langile klasea, turista denean ere, ez da hain inozoa, leihotik begiratzen gaituzun intelektual



hori; ilararen batera animatuko bazina, ikusiko zenuke leihotik baino gehiago. Ilara horiek ez dute gezur bat bilatzen, ilara horiek egiten dituztenen zibilizazio maila adierazten dute (beti dago kolatu nahi duen narzisistaren bat, egia da), ilara egiten dutenek ez dute elkar jaten, elkar jotzen, elkar zapaltzen. Elkarrekin itxoiten dute. Ilara horiek itxaropen kolektiboa dira. Eta ilara horietan asko begiratzen diogu elkarri, laztantzen, laguntzen ere bai (zenbat aldiz salbatu zaitu ezezagun baten adeitasun keinuak?).

Orain artikulugileak ez dit ulertu, agian. Ea zuk? Mimatuz ilarak eta ilarakideak. Abuztu on. ●